

## JARDUERAK

### HITZALDIA

Abenduak 13. 19:00

**El animal coexistente.** Andreas Wutz (artista).

Animalia gure komunitatearen barruan edo kanpoan da bizikide, eta komunikatzeko modu propioak garatzen ditu. Gizakiok gorputz batera mugatu nahi dugun arren, eta fabrika edo laborategietan giltzaperatuta dagoen objektutzat tratatzen dugun arren, ezinezkoa da kulturaren garapena ulertzea animalia-aren presentziarik gabe; landa-ingurunearen parte da, baina baita zientzien, literatura-aren eta erlijioaren parte ere. Agian horregatik, ez da harritzekoa argazkigintzako eta zinemagintzako aitzindariak, baita XX. mendeko artearen arloko zenbait ordezkari ere, animalia-aren munduaren arakatzaille ere izatea aldi berean.

Laborategian. Gaztelaniaz. Sarrera librea lekua bete arte.

### SOLASALDIA

Otsailak 22. 19:00

**Sinesteko Ikusi.** Olatz González Abrisketa (antropóloga) eta Oier Etxeberria (artista).

Ez dago gauzak ikusteko modu espontaneo eta natural bat, are gutxiago jainkotiarrarekiko erlazioei dagokienean. Sistema erlijioso orok, bere konfigurazio sentsitiboan, ikusgarriarekiko harreman berezia eratzen du. Honen harira, ez dezagun ahaztu Jesusen Lagundia sortu zenean, jainkotiarrarekiko harremani dagokionez, ordua arte nagusizat hartzen zen entzumenaren lekua hartzen hasita zegoela ikusmena.

Zaila da aldaketa hori ulertzea zientzia garatzen ari zen unibertso mekanizistaren ikuspegi eta honek zeukan kristau izaera kontuan hartu gabe.

Marra eta gurutzadura hauei jarraiki, elkarriketa gure arreta eta zinea, ikerketa antropologikoa edo arte garaikidea bezalako diziplina ezberdinetan ikusmenak hartu duen leku eta papera aztertzen saiatuko da.

Laborategian. Euskaraz. Sarrera librea lekua bete arte.

## ACTIVIDADES

### CONFERENCIA

13 de diciembre. 19:00

**El animal coexistente.** Andreas Wutz (artista).

El animal coexiste dentro o fuera de nuestra comunidad desarrollando sus propias formas de comunicación. A pesar de que el ser humano pretenda reducirlo a un cuerpo, tratándolo como un objeto encerrado en fábricas o laboratorios, no se puede entender el desarrollo de la cultura sin la presencia del animal; como parte del medio rural, pero también de las ciencias, la literatura y la religión. Quizás por ello, no resulta una sorpresa confirmar que los pioneros de la fotografía y del cine, incluso algunos representantes del arte del siglo XX, fueran a su vez exploradores del mundo animal.

Laboratorio. En castellano. Entrada libre hasta completar aforo.

### CONVERSACIÓN

22 de febrero. 19:00

**Sinesteko Ikusi.** Olatz González Abrisketa (antropóloga) y Oier Etxeberria (artista).

No existe una manera espontánea y natural de ver las cosas, y menos en lo que respecta a las relaciones con lo divino. Todo sistema religioso en su configuración sensitiva aborda una relación particular con lo visible. No olvidemos al respecto que la Compañía de Jesús surge en una época en la que la preeminencia del oído como sentido privilegiado para las relaciones con lo divino comienza a ser sustituido por lo visual.

Se trata de una transformación que difícilmente puede ser entendido si no se atiende a las innovaciones que la ciencia estaba desarrollando en su concepción mecánica del universo, así como al carácter cristiano que esta concepción mecanicista del universo venía arrastrando.

Siguiendo estas líneas y cruzamientos, la conversación oscilará entre los pormenores de nuestra disposición receptiva y el lugar que ha llegado a ocupar el sentido de la vista en disciplinas tan dispares como son el estudio antropológico, el cine o el arte contemporáneo.

Laboratorio. En euskera. Entrada libre hasta completar aforo.

San Telmo Museoa  
Zuloaga Plaza, 1. 20003 Donostia  
Tlf.: 943-481580  
www.santelmomuseoa.eus | santelmo@donostia.eus  
@santelmomuseoa

Ordutegia Horario  
Asteartetik igandera: 10:00 - 20:00  
Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik.  
De martes a domingo: 10:00 - 20:00  
Lunes cerrado, festivos abierto.

Prezioak Tarifas  
Sarrera orokorra Entrada general 6€  
Murriztua Reducida 3€  
ASTEARTEETAN DOHAINIK  
LOS MARTES, ACCESO GRATUITO

## AITA LABURUREN BURUAREN BISITA ETA ANATOMIA

## VISITA Y ANATOMÍA DE LA CABEZA DEL PADRE LABURU



Erakusketa / Exposición

**2018-12-4**  
**2019-2-24**

San Telmo Museoa

Laborategia / Laboratorio  
Sarrera dohainik / Entrada gratuita

Oier Etxeberriaren proiektu bat / Un proyecto de Oier Etxeberria

ANTOLATZAILAK / ORGANIZAN



ERAKUNDE BARESELEAK / SOCIOS INSTITUCIONALES



PATRONO PRIBATUAK / PATRONOS PRIVADOS



José Antonio Laburu Olascoaga (Bilbo 1887 – Erroma 1972) edo Aita Laburu euskal zinemagintzako lehen dokumentalistetako bat izan zen. Herri-medikuntzako erritu magikoei buruzko filmak egin zituen, animaliekin egiten ziren pertzepzio-esperimentuei buruzkoak, zoologikoei eta eroetxe edo psikiatrikoei buruzkoak; film horiek guztiak ondare oso garrantzitsua dira antropologia bisualerako eta, zalantzarik gabe, pentsamendu arrazionalaren eta zientifikoaren alderdi ilunetan arakatzeko interesa zuen publizista bat (teologoa, medikua eta antropologoa) agertzen dute.

Erakusketa-proiektu hau Laburuk egindako ikerketen aniztasunetik abiatzen da, eta haren produkzio intelektuala kokatzeko ibilbide bat egitea du xede, ikuslea protagonistaren buruan sartzerara gonbidatuta.

Erregistro dokumentalen (testuak, gutunak, grabazioak eta ondare zinematografiko aberats bat) erreproduzioen arabera antolatzen da erakusketa; ondare hori guztia Azpeitiko Loiolako Santutegiko Artxibo Historikoan eta Musika Artxiboan, Lazkaoko Beneditarren Fundazioan eta Euskadiko Filmategian gordeta dago.

Erakusketa honetan proposatutako ibilbidea ez dator bat kausen eta ondorioen kateetan oinarritzen diren irakurketekin; izan ere, irakurketa horien arabera, guk hautematen dugun oro gure logikaren arauen araberakoa baita, definizioz. Premisa horri jarraikiz, Aita Labururen alderdi etnografikora, teologikora eta zientifikora hurbiltzea proposatzen da bere figura desoreka produktibo bat sortzeko gai den heinean.

Aita Labururen metodologiaren bereizgarrietako bat da material eta enuntziatu erabat desberdinak ordenatzearekin tematuta egotea, ikuspuntu zuzenera daraman lerroa izango baltiz bezala. Produzitzeko modu horiei esker, eta lanen izaera dibulgatzailea eta Euskal Herrian XX. mendeko lehen hamarkadetan sartzen hasi ziren teknologia berrien (zinema, telebista edo diseinua) erabilera ere aintzat hartuta, boterea, jakintza eta sugestioaren artean ematen diren loturak araka ditzazkegu.

### 1.- Ikusten ez denaren errealitatea

Erlijioren batean sinesteak, ikusten ez den ordena bat onartu eta ordena horri ahalik eta modu harmoniatuenean jarraitzea esan nahi du. Aita Laburuk begitazio edo biosioen fenomenoari aurre egin behar izan zuen hainbat aldiz, eta gertakari horiek industrializatzea arriskutsua izan zitekeela ohartarazi zuen bere ibilbide osoan; izan ere, haren ustez, begitazioak industrializatu egiten ziren estasi-egoeran zeude-nean argazkiak eta filmaketak xede komertzialarekin edo kazetaritzarako hedatuz gero.

Materialei dagokienez, hogeita hamarreko hamarkadan Iazpi mendiarren hegaletan gertatutako “Ezkioko agerraldien” inguruan bildutako dokumentu-erregistroak dira nagusi atal honetan; gertakari haietan, hainbat begitaziodunek fededun ugari bildu zituzten. Masa-fenomeno izatera iritsirik, Gasteizko Gotzaintzak ere parte hartu behar izan zuen bertan; Gotzaintzak Aita Labururen esku utzi zuen kontrolpetik ihes egiten hasita zegoen egoeraren kudeaketa.

### 2.- Animalien hipnosia

Animalien magnetismoak indar ezezagunen ekintza sendagarria aztertzen zuen; hasieran, indar horiek objektuen plano batean kokatzen ziren (imanak, harriak, zuhaitzak...), geroago plano psikiko batera igarotzeko (kitzikaberatasuna, sugestioa, desioa...). Ildo horretan, psikoanaliaren, hipnosiaren eta inkontzientearen psikologiaren aurrekari historiko argiena da.

Jesuiten ikasbideari jarraikiz, Aita Labururen ikerketetan, irudimenak gorputzean duen eragina biziki garrantzitsutzat hartzen zen osasuna eta gaixotasuna bereizteko. Ulegarria da, beraz, sentsibilitate sozio-sanitario, zibiko eta moral handiko norbaitek interes bizia izatea horrelako fenomenoekiko, irudimenaren ahalmenari leporatzen zaizkion –lausoki leporatu ere– fenomenoekiko, alegia.

### 3.- Locuela

1586. urtean Tomaso Garzoni idazle italiarrak *Hospital de los locos incurables* argitaratu zuenetik, eroetxeak hamaika literatura-lanen agertoki izan dira.

Montevideon barrena biran zebilelarik, Aita Laburuk Txileko Santiagora joan behar izan zuen hainbat egun lehenago atxilotu eta barneratu zuten paziente bati galdeketa egin eta diagnostikoa emateko. Domingo de Zárate zen pazientea, “El Cristo de Elqui” ere esaten zioten; Serenako predikaria zen, eta hainbat urte geroago, Nicanor Parra poetak bi poema-bilduma eskaini zizkion.

Garai hartan, medikuntza gaixotasun mentalak gero eta gehiago somatizatzen ari zen; bestalde, Aita Laburu nahasmendu psikopatologikoei eta desbideratze teologikoei buruzko azterlanak egiten ari zen. Faktore horiek guztiak paziente horrengana iritsi ziren, beraz, ordurako masa-fenomeno bihurtua zegoen gizon harengana. Psikiatriko hura –Casa de Orates– herrialde hartako gaixo mentalentzako lehen erakunde modernoa izan zen, eta hantxe bertan egin zuten solas jesuitak eta bera Kristo zela zioen pazienteak.

José Antonio Laburu Olascoaga (Bilbao 1887 – Roma 1972), conocido como Padre Laburu, fue uno de los primeros documentalistas del cine vasco. Sus películas en torno a los ritos mágicos en la medicina popular, los experimentos perceptivos realizados con animales, o los zoológicos y los centros de internamiento psiquiátrico, constituyen un legado sustancial para la llamada antropología visual y, sin duda, muestran a un publicista (teólogo, médico y antropólogo) interesado en indagar en las zonas oscuras del pensamiento racional y científico.

Este proyecto expositivo parte del carácter heterogéneo propio de las investigaciones realizadas por Laburu, buscando ubicar su producción intelectual mediante un recorrido que invita al espectador a adentrarse en la cabeza del protagonista.

La muestra se articula a partir de las reproducciones de distintos registros documentales (textos, correspondencias, grabaciones y un rico legado cinematográfico) conservados en el Archivo Histórico y Musical del Santuario de Loyola en Azpeitia, la Fundación Benedictinos de Lazkao y en la Filmoteca Vasca.



El itinerario propuesto en esta muestra se distancia de aquellas lecturas basadas en las cadenas de causas y efectos según las cuales todo lo que percibimos obedece, por definición, a las reglas de nuestra lógica. Siguiendo esta premisa, el proyecto plantea un acercamiento a las facetas etnográfica, teológica y científica del Padre Laburu, como figura que plantea un desajuste productivo.

La metodología del Padre Laburu se caracteriza por su empeño en ordenar los materiales y los enunciados más discordantes, como si se tratase de una línea recta que conduce al punto de vista correcto. Unas formas de producción que unidas al carácter divulgativo y al uso de las tecnologías emergentes en las primeras décadas del siglo XX en el País Vasco (el cine, la radio o el diseño), permiten explorar los vínculos que se producen históricamente entre poder, saber y sugestión.

### 1.- La realidad de lo no visible

Crear en cualquier religión consiste en aceptar un orden no visible al que es necesario ajustarse del modo más armonioso posible. A lo largo de su carrera, en las diversas situaciones en las que Laburu se enfrenta con el fenómeno de las visiones, alerta sobre el peligro de la industrialización de estos sucesos a partir de las fotografías y filmaciones comerciales y periodísticas de los visionarios en éxtasis.

Entre otros materiales en la exposición destacan los registros documentales compilados en torno a las “apariciones de Ezkioga” sucedidas en la década de los años treinta en las laderas del monte Iazpi y en las que una serie de visionarios congregaron a una multitud de fieles. Un fenómeno de masas en el que llegó a ser necesaria de intervención del Obispado de Vitoria, quien confió en la experiencia y el saber hacer del Padre Laburu para gestionar una situación que comenzaba a escapar de su control.

### 2.- Hipnosis animal

El magnetismo animal se interesaba por la acción curativa de fuerzas ignotas que, en un primer momento, estaban situados en un plano objetual (imanes, piedras, árboles...), para más tarde pasar al plano psíquico (la excitabi-

lidad, la sugestión, el deseo...). En ese sentido, constituye el antecedente histórico más claro del psicoanálisis, de la hipnosis y de la psicología del inconsciente.

Fiel a la doctrina jesuita, las investigaciones del Padre Laburu consideraban la influencia de la imaginación en el organismo como algo de vital importancia para delimitar lo sano y lo enfermo. Es comprensible, por lo tanto, que alguien con una sensibilidad decididamente socio-sanitaria, cívica y moral, se interesase de un modo tan enérgico por todos estos fenómenos difusamente atribuidos al poder de la imaginación.

### 3.- Locuela

Desde la aparición en 1586 del *Hospital de los locos incurables* del escritor italiano Tomaso Garzoni las casas de locos han sido escenario de incontables recreaciones literarias.

Estando de gira por Montevideo, el Padre Laburu tuvo que trasladarse a Santiago de Chile para interrogar y diagnosticar a un paciente que había sido detenido e ingresado pocos días atrás. Se trataba de Domingo de Zárate, conocido también como El Cristo de Elqui, un predicador proveniente de la Serena al que años más tarde el poeta Nicanor Parra dedicó dos poemarios.

La creciente somatización de la enfermedad mental que la medicina estaba impulsando en aquel momento, junto a los estudios realizados por el Padre Laburu en torno a los trastornos psicopatológicos y las desviaciones teológicas, llegaban de este modo hasta un paciente que para entonces ya era un auténtico fenómeno de masas. Aquel psiquiátrico, Casa de Orates, primera institución moderna para enfermos mentales del país, fue el escenario donde conversaron el jesuita y el Cristo de Elqui.